

# Kataluniatik Nafarroara

**M**editerraneolari begira idazten ari naiz, baina euskara barra-barra aditzen da inguruetan. Hizkuntzen gaineko kale-neurketa egitera, arras emaitza itxurosoa aterako litzateke. Pazko astea baita. Ikastetxeak itxita mugaz hegoaldeko lau lurraldeetan. Milaka familia euskaldun hondartza ondoko hoteletan, oinez, txirrin-duaz lasterrean Behobiako kamiseta soinean... Nafarroako euskalgintzako zenbait aurpegi ezagun ere atsedean hartzen. Itxuraz, dena bare. Xingola hori gutxi paparretan. Pankarta handia Cambrilsko udaletxeko balkoi nagusian: *Llibertat presos politics*. Esteladak zenbait etxetan. Espainiako bandera bat edo bertze. Ostalaritza arloa poz-pozik, bazterrak oro jendez gainezka egon baitira Aste Santuan, hau da, hotelak, jatetxeak, tabernak eta dendak; aspaldiko partez, gainera. Madrilgo hedabideei kasu egitera, ordea, iduri lezake Monegroetan baino jende gutxiago ibili dela. Alkate andrea Esquerrakoa, PDeCat eta PSCrekin gobernu taldean. C's-k bi zinegotzi. Joan den abenduko hauteskundeetan, Arrimadasen taldea lehen indarra, eta inkesten arabera, garaile ere Estatuan, espainiar nazioaren aldeko mezuak bulkaturik, Kataluniako aferari erantzunez. Estatuko joera politikoez



Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá

ITZULTZAILEA

**Nafarroako Ahal Dugun gertatu den gerra latza, hondagarria. Hori bai oparia UPNrentzat. Zenbaitek uste dute ez dagoela deus egiterik eta aldaketaren gobernuarenak egin duela**

eragin handia izan ohi dute Nafarroan, eta Espainiaren batasunaren aldeko mezuek jarraitzaile aunitz bildu izan dituzte beti. Ez, ordea -dirudienez-, duela 30-35 urte bezainbertze. Konparazio batera, Iruñeko balkoiak Espainiako banderez josiak egonen ziren duela hiruzpalau hamarkada, Kataluniako

gertakarien haritik, orain Zaragozan egon diren bezala. Oraingo honetan, bai, egia da, bandera hori-gorri aunitz agertu dira nafar hiriburuan, baina ez da horrenbertzerako izan. Dena den, kanpo-faktore berri hori kontuan hartu beharko da nahitaez heldu den urteko hauteskunderi begira. Aurrekoan, txirripaz ez zen sartu Ciudadanos nafar Parlamentuan, eta orain, itxura guztien arabera, Estatuko joerak hauspoturik, langa ederki gaindituko du. UPN eta PPren kaltetan bada, gaitz-erdi, baina ez dago hain garbi. Horrelakorik ez zen espero duela hiru urte aldaketaren gobernu abiarazi zenean, ezta Podemosen beherakada orokorra ere (inkesten arabera), eta are gutxiago, Nafarroako Ahal Dugun gertatu den gerra latza, hondagarria. Hori bai oparia UPNrentzat. Zenbaitek uste dute ez dagoela deus egiterik eta aldaketaren gobernuarenak egin duela. Argi dago UPNk, PSNk, PPK eta Ciudadanosek 26 egiten badute, Esparza izanen dela lehendakari. Baina aurrekoan, gauzak estu-estu egon ziren, eta hemendik urtebetera ere berdin. Faktoreak faktore, urtebete dago jendea berriz ere aldaketaren alde pizteko, eta Ahal Dugu bozkatutako jendearen botoa atxikitzeke. Horixe da erronka. ■

**GUZTION LIBURUAK,  
BIDEOAK, AUDIOAK...  
GUZTIONTZAT**



**BOOKTEGI**  
Guztion liburuak, guztiontzat

[www.booktegi.eus](http://www.booktegi.eus)